

KARMIENGO ANDRA MARIJARI

BEDERATZIURENA

ETA

ASTEROKO IKUSTALDIA

---

AITA MARTIN

KAŔMELDAŔAK

---



Grijelmo-Alargün eta Semien irakolean  
Arbolantxa, 1.—Bilbao'n

1924



4-77001  
F-90926

65  
35579

# KARMIENGO ANDRA MARIJARI

BEDERATZIURENA


ETA

ASTEROKO IKUSTALDIA

---

AITA MARTIN  
KAĆMELDAĆAK

---



Grijelmo-Alafgun eta Semien irarkolean  
Arbolantxa, 1.—Bilbao,n  
1924

**Imprimi potest.**

**Fr. Ezechiel a S. C. Jesu**  
**Provincialis**

**Nihil obstat.**

**Lic. Petrus de Anasagasti**  
**Censor**

**Vitoria, 1 de Julio de 1924.**

**Imprimatur**  
**El Vicario General,**  
**Dr. Asunción Gurruchaga**  
**(L. S.)**



Karmengo Andra Maria

«*Qui elucidant me, vitam æternam habebunt» Eccli. 24.*

*Betiko bizitzia jadetsiko dabe ni goralduten nabenak.*

*Scapulare B. M. Virginis de Monte Carmelo laudat ita S. C. de Indulgentiis, 27 Ap. 1887: «Nobilitas ipsa originis, veneranda antiquitas, latissima ejusdem in christiano populo pluribus abhinc sæculis propagatio, necnon salutares per illud habiti pietatis effectus, et insignia quæ perhibentur patrata miracula mirabiliter commendant».*

*Karmengo Amak bere eskapularrijodunai dirautziezan itzak: «In vita protego; in morte juvo; post funera libero». Biztaldi aonetan aldeztuten dot; eriotz aldian, lagundu; il ondoren, asketu.*



## OPALBIDEA

Ene Jesus Gaizkale maitagarí ori, zeure Ama laztana guk aintzaldutiagaz zeinbat atseginduten zarian nik zeure otsein erúkarí onek ondo jakiñik, bere aintza ta onustasunak iragarteko idaztiño auxe argitaldutia erabagi dot. Zeuri baño ego-kiago iñori be ezin opaldu neinkio. Zeuri eta zeure Ama onetsiari dautsuedan mai-tasunañen, opagai labur au abegi onagaz artu egistazu, eta berau irakuři dagiyenen biotzak Karmengo Andra Marigazko za-letasun ustetsuan biztu daizuzala eskatu-ten dautsut, gixadi guztiak Ama samuř au maitetu dagian eta erúkarí guztiekin bero-negana egapetu daitezan idatzi da-ta.

Irakurle maitia, itz bi esan biar dautzu-daz zeuri be. Bederatziuñen auxe idazterea igitu naben onerazpenak berau sañitxo irakuři eta goznañtutera erabagiten bazaitu, bijok egiten gaitu Ama eder onen seme zoriontsuak. Arte edo aretx eskuf bat, txoritxuen mustur politak mendi batetik

bestera aldatuta, sugatz lerden orítsua asten dan lez, idaztiño aonen ingoskiak emon leikixuen azi mamintsua batu eta ereiten alegindu zaite urko gizarrtian; beraz zeure zoriona lortuaz gañera, maitasun ederaren eta itxaropen garbiaren Ama dan Karmeloko Andra Marijari burestun apaiña eskeñiko dautzozu, «bixitz betikorria jadetsiko dabela bera goralduten dabenak» diñosku-ta.

Andra Marijaren aintzak agoi bako iturri gañdenaren antzeko dira, esanago ta ugariago, entzunago ta gozatsuago. Batezbe Karmengo Ama Birjiñaren izena eztirik gozoena baño eztitsuago da eta abestirik alaitsuena baño pozgarriago. Iragari ba beti ta edonun Karmengo Ama eñuki-tsuañen anditasunak.

Ezagutua, maitetua eta bedeinkatua izan daitela Euzkaleri guztian Karmengo Ama gozo-gozua eta bere eskapularijo deuna, auxe da nire gogo guztia Bederatziuñen au argitalduten.

Markina-1924.

*Egileak.*



# KARMENGO ANDRA MARIJARI BEDERATZIURÉNA

*Gurutz santuaren etc.*

## Damu-otoitza

Jesukristo neure Jauna, Jainko ta Gizon egiazkua, neure Egile ta Gaizkale zarian ori, zeugan ziñesten dot eta zeure eŕuki amaibakuan ditxarot ustetsu; beste gauza guztijek baño maiteago zaitudaz, ontasun maitagari berbera zara-ta. Etzaitut geyago naigabetuko-ta, paŕkatu egistazuz neure eskeŕ-txaŕ eta gaizkerijak.

Zeure goŕputz ori zigórez zauritura, burua arantzaz josita, kurutz-age tik eskegita iltzeŕ zakustazanian, nekaldi guztijek neure eŕuz diriala go gaŕturik, luŕeraño auzpastuten naz lotsaz. Neure maitasunez oteunduta

neure bijotzari deika oteundegi bas-teŕtxuan ikusten zaitudazanian, gau ta egun neuri zaiñ, neuri eskeŕga-betasunak lotsatuta nauko-ta, zeure oñetara zelan auŕkestu be eztakit. Asketzi nagixu, Jesus on eŕukitsua, zeure ontasun maitagaŕi ori iraindu dodalako damu naz-da. Gaiztokiko sugar tan nintzan onezkero, zeu ni-gaz eŕukitu ezpaziñan. Zeure odol aberatsak eta zeure bijotz gozo o en atsekabiak gaizkatuko nabela uste osuan nago. Lagundu egistazu zeu-re grazijaz; ori barik, ezeŕ enaz, gauza onik ezin egin dot; beragaz bai naz dana. Eskeŕtxaŕik ez geyago; zeuria naz, zeutzako jayo nin-tzan: nigandik zeŕ nai dozu, Jauna? nire adimen eta bijotz au? Dana zeut-zako dot, ene Jauna; zeure eskue-tan jaŕten naz, zeuk nai dozuna nai dot; aonelan zoriontsua izango naz eŕbestian zeu maitatzen, ta dono-

kian gero amaibako egunetan zeu ikusten. Alan izan bedi.

### **Egunoro esateko eskaria**

Zeure oñetara natoŕtzu itxaropen gozuaz, Oŕban-bako Andra miragaraŕija ta Karmeloko edertasuna zarian, ene Ama laztana. Alaitasunez eta goi-eskaŕez betetan dozuz zeure se-me-alaben bijotzak Karmengo mendi deunian autu zendun lorategi atsegintsutik, maitasun edeŕaren Ama eŕukitsua zara-ta ¡Ze edeŕto egoten dan zuk, sugatz ongiliak adaŕak lutzatuta lez, egiten dozun kerizpian! Egaŕi dana ituŕi garden ondora lez, ume maitaria amaren besartera lez, eta bijotz naigabetua adiskide zintsuagana lez, zeugana natoŕ ni, Karmengo Eŕegiňa, zeure begi eŕuki-tsuo kaz onetsi nagixun.

Negaŕezko zelai onetan galbidez eta samindasunez inguraturik nabil-

da, zeuk baño obeto nok aldeztuko nau, Ama geuria? Entzun egistazuz abegi maitekoŕaz zeure bijotzera us-tetsu jasoten dodazan eskari gogo-tsuok; batezbe Bederatziuŕen aone-tan opa dodan mesedia loŕtu egista-zu eŕukitsu, iragaŕi al dagidan neuk be zeure aintzarako beste askok esan dabena, utsik ez dozula bialdu iñoz zeure egapera eldu jatzunik. Amen.

## LENENGO EGUNA

### IRAKURKIXUNA

*Andra Marija zeru bidea da*

Ama Birjiñagazko oneraspena zerurako dirianen ezaugarria dala, bat-batez autortzen dauskue eleiz-gurasuak. ¡Au bai pozgarria Ama zerukoau maite dabenen-tzat! Aonelan antzeztu jaku berbera idazteunetan: «Atsedentoki bat bilatu neban oŕ-emen, eta Jaunaren onibar ugarian jaŕiko naz. Neure altzoan etsun zan Egilia, eta esauzten: Jakob'en etxadian biztandu zaite, eta Israel izan bedi zeure abatza, eta neure autatuen eŕdijan sustraitu zaite. Zorionekua neuri entzun dagistana eta nire atietan unoro zain daguana; bixitz betikora aurkituko dau neu aurkitu nagijanak, eta Jaunagandik lorituko dau gaizkapena».

Itz onekaz atzalduten dausku Andra Marijak beragana egapetu daitezananak donokiratuteko Alguztiduuak emon dautzon eskubidea, zabalik dagozala beti zeruko atiak berak aldeztu dituanentzat. Origaitik beronen oneraspenari deitu dautsie

zerurako maładia eta Paradisuko atia. Pedro-Damiano deunak dirautso: Andria, zeuri emon dautsuez zeruko giltzak; zeruko maładia zara zu; ba zeu bitar̄te jatsizan Jaungoikua zerutik ludira eta igoten dira gizaseiniak luditik donokira, Jakob eŕkabeari ager̄tu jakon maładitik aingeruek igoten zirian lez.

Lekaide santu batek zeruraño joiazan maładi bi ikusi ebazan bein, gor̄ija bata, zurija bigařena; Jesukristo eguan maładi gor̄i goyan, ta Ama Bir̄jiña bestian. Eskałera gor̄itik joiazanak mała batsuk igoñ oŕduko jausten zirian bera. Maładi zuriti igoteko esautzienian, eŕez igoten zirian zeruraño, Ama Bir̄jiñak goiti eskua emoten eutzien-da.

Ziuf zerura elduko gariala Ama eŕuki-tsua geure aldez badogu, esan gura dausku. Berau bitar̄te jadetsi dabe autatuek obenen askemēna, onbidean iraupena eta betiko zorijona.

Au entzunda poztu leitekez Karmengo Ama gozuaren babespien bizi dirianak, zerurako aututa dagoz-da; atsegīnez lasatu beitez, euron izenak donokirakoen aŕtian idatzita dagoz-da. Bere semiok igoteko

zeruti luzatu dauskun maładi uŕezkua da Karmengo eskapularijo omengaríja.

## OTOIDZA

Alguztidunak apaindutako ixakirik edeŕena eta soŕtzez gaŕbi-gaŕbija zarian Karmengo Ama laztan maitagaŕija; zeure Soŕkunde Oŕbanbakuaren berarizko irudia antzeztu jakon Elias suzko igeŕliari giza-oñatza lez itxasoti Karmen mendiruntz igon zan odaitxuan. Itxasoti jaso baziñian be, mingostasun barik uŕten ziñian zu Jaunaren gogoti, eŕuge soŕtua, goi-eskaŕez bete-betia, eta Elias'en odaitxuaren antzera zabaldu zara grazijazko odai zuri uŕtsua Karmel mendi guŕgaŕiti luŕbira osora, eta euri ongile oŕen deira eŕne dira edonun deuntasunezko lora usaintsuak.

Goraldu zayezala ixaki guztijek, geure Ama zoragaŕija, zeure Soŕpen gaŕbijan; jatorízko edeŕtasun ori go-

gaŕtuten, pozaŕen gagoz gu beintzat. Onetsi gaixuz eŕbestian zeuri deika gagozan guztijok, biuŕtu guganuntz zeure begi eŕukitsuok, eta izan zakiguz zerura igoteko maŕadi zorionekua. Orain baŕiz jaritxi eiguzu Be-deratziuŕen onetan zeure bitaŕteko-tasun samuŕetik ziuf ditxarogun la-guntasuna; onetarako dirautsugu bijotz-bijotzeti: Aguŕ, Eŕegiňa ta eŕukiz beteriko Ama... Salve, Regina...

*Orain eskatu bakotxak berarizko mesedia.*

### Jazokun oroigarria

Karmengo Andra Marija, Simon Stok deunari kutuna ekafi eutsan egun berian, janzki onen goitiko almena erakusten asi jakun, 1251'g. Garilaren 16'g.

Axukatuta ibizen gizon bi asaŕe zein jausiko ilda. Walter deitzen zan bijetati bata zauriturik jausi zan, eta noz ilgo eguan, baňa etsimenduta diabruari deika. Jaunari eŕeguka eguan bere anai jauparia

Pedro Lintonia a bijotz gogoŕa bigundu zeiten. Zeru aldetik esautzien; «Zoiaz, Pedro, arin oŕko Karmelora, eta ekaŕi egiztu ona neure seme maite Simon Stok». Eldu zanian Karmeldarén Nagusia, gexua auŕkitu eban biraoka Satanas'i arimia emoten, ta odolez estalduta. Kurutz ezau-garija eginda ipiňi eutsan ganian auŕeko gabian Ama Birjiňak ekaŕi eutsan eskapularijua. Jantzi deun arek ikutu eutsaneko, aldatu jakon arpegia Walter gaxuari, emoutzen negaŕari, autortu Simoni bere gaizkeri aundijk eta il zan bake osuan kurutziari eta kutunari munka. Bilduŕ zan bere anaia oindiňo be arima aren azkenagaz, baña Jaunak laketuta agerŕtu jakon zirautzola: «Andra Mariaren eŕukiz eta bere kutunaren indaŕez enaz jausi gaiztokira, zerurako naz».

*Orain esan leikez «Otoi goreslariak».*

## BIGAŘEN EGUNA

**Gurutze santuaren ta egunoro esateko eskaria**

### IRAKURKIXUNA

*Andra Marijak dauskun maitasuna*

Andra Marija geure Ama da-ta, zeinbat maite izango gaituan ziñestu giñai. Geure Ama da Marija, ez aragiz maitasunez bañó. Maitasun edeñaren Ama naz ni, diñosku.

¿Zeñgaitik maite ete gaitu oñenbesteraño? Andija dalako Jaungoikuari dautzon maitasuna, eta gure afduria emon eutzolako Jesus'ek iltzeñ Kurutz-agetik.

Agindu baten saŕtzen dira Jainkoagazko eta geideagazko maitetasuna. Adar bi-kо landaria da onoimenetan bikañena dan maitasun au, Jaunagana bata, uŕko-lagunetara bestia zabaltzen dala; bata geituten dan eduz, luzatuten da bigařena be. Augaitik Jaungoikua asko maite eben santuak, bizija galtzeraño eldu zirian anaijen ongurez. Jabieñ eta Beriotxoak Indijetan, Sales, Pidel eta Paulino deunek ziñezba-

ko arimen ongosez, pozik galdu eben eukien dana.

Ori egin badabe santuek geidien ongurrez,  ze  eztau egingo e ukar jen aldez Ama Birji ak, santu eta aingeru guztijek batera ba o maiteago badau Jaungoikua? Ama guztijek umiai izan dautzien maitasun samur a irudi i luna ba o ezta Andra Marijak guri dauskunaren onduan.

Or en gain, maite gaitu samurki gure Ama zerukuak, bere egapeko semetzat a tu genduzalako Kurutz-o ian Jesus'en aginduz. Jainko-Semiak emon eutzan azkenengo gomutakia auxe da-ta, biotz mami -mami ian ira tuta geratu jakon. Geurre gaizkale eski i zan eriotzara Jesukristo, ta iltze  emon eutzan bere Amari gure arduria. Batera doiaz Mariagan Jaungoi-kuaren Ama ta gizonen ama izatia; amatasun batak biga enau daka , ta aonexek emoutzen Kurutz-o ian azkenera o zutik irauteko kemena.

¡Ah! Aintxe ezagutzen dau, bere ardura samur a ezebala lotu bia  ilten eukan Se-me aregan bakar ik, baita lasatu bia  zala bere egape amultsua o du aretan softu jakozan guztijentzako be. Galtzen dau

Jaungoikua, ta irabasten dau gizona; biritan Ama izaten asi da ointxe: *Homo et homo natus est in ea*; Eŕegearen Ama ta eŕbestetuen Ama, Epaikarijaren Ama ta eŕudunen Ama. Beraz bijon Ama izan ezkerro, andixik etoŕen Jainko ta gizonen arŕteko begipe, bake egile ta gaizka-ola izatera.

Ondo daki Ama onek bere nekaldi samiňen eŕdijan jaiotako semiak gariana, Jesus'en odolagaz beŕerosita gagozana;  zelan ez gaitu ba maitatuko samurki?  zelan ez gaitu babestuko aŕduratsu, alango neke-miň gaŕatzen bidez semetzatuak bagara? Emendik Jesus'en Amaren edestia gizaldijen eŕeskadan bere seme gizonai egindako eskaŕ eta mesede ugarijen txorita eder bat baño ezta. Gure Karmengo eskapularijo maitagarria euron artian aundiженetarikua da.

### **Bigaren egunerako otoitz**

Karmengo Ama laztan gustiz maitagarria; Elias igerla sutsuaren ondorenguak zeugazko maitasun zintzia erakusteko, eta zeure biotz amako-

íaren onustasunai eskeí onaz erantzuteko, beste iñok baño lenago jaso entzuen Karmel-mendijan zeure aintzaz ludian izan dan lenengo elezia, izanik Karmeldarrek zeu lenengo guítu eta beti gogotsuen bedeinkatu zaituenak.

Egixu zeuk, Ama grazijaz betia, izan daitela gure arimia Jaungoiko altsuaren biztoki atsegintsua eta onoimenezko lilitegi bizija; loítu eiguzu zeuk, grazijaren Ama, zaindu daigula arimako grazija beste gauza guztijak galdua be. Orain báiz jaritxi eiguzu Bederatziuéen onetan zeure bitartekotasun samúretik ziúr ditxarogun laguntasuna; onetarako aguítuten zaitugu bijotz-bijotzetik: Aguí, Eŕegiña ta eŕukiz beteriko Ama...

*Berarizko mesedia eskatu orain bakotxak...*

## Jazokun oroigaria

Prantzia'ko neskatala gazte batek eroian beti soñian itxaropen bixijaz Karmengo kutuna, zerbait munduzale be banan baña. Dantza lekura bein ageftu jakien mutil gazte antzeko saldun bat ofratzetik ara apain. Eruan ebazan onek dantzara ango neskatala guztijak, ta pozik lagundu be oneik. Bakařik geratu zan deitu barik len aitatu dana. Dantza tokitik urten zanian saldun gazte eder ori, oiñazpijetan sugaró oztiñak oaftu eutzazan neskatala onek, baña begijetako ustekeria zalakuan ez eutzon gařantzirik emon.

Gerotxuago lekaime edo erlejiosa iza-teko asmuz bixitz guztiko autoŕtza egin eban Juan B. Vianey Ars'ko Abade agur-gafijagaz. Onek autoŕtza egiñez itandu eutzan: Urlije eguneko dantzaldijan jazo yatzuna gomutan dozu, alabia?—Bai, Aita—Ta bestiakana bai eta zugana eldu etzana noŕ zan bakizu?—Eztakit ba, Aita.—Demoniñua bera zan; beragaz dantzatu ebenak kondenauta dagoz batzuk ta kondenetako zori andijan bestiak be; ez eutzun ikutu zuri, soñian zeunkalako Kar-

mengo eskapularijuak, galbidieta aldepen santua, Karmengo Amak bere seme-alabai dautzien maitasun andiaren gomutaki argija.

*Orain esan leikez «Otoi goreslariak».*

## IRUGAÑEN EGUNA

### IRAKURKIXUNA

*Andra Marija pekatarijen Ama da*

Birjite deunari esautzen bein Andra Marijak damubidetu gure daben pekatarijen Ama zala, ta geyago poztutene dala obendi erukarrijen Ama deitutiaz aingeruen Eregiña deitutiaz baño.

Oben ilgorian daguanak bijotza naigabez saminduten dantzola egija da, Jesus'en nekauste gogoña gomutetan dantzota, bere ontasunai eskeí - txafagaz erantzuten dautzie-ta. Pekatari batek zirautzan bein: «Neure Ama zariana erakutzixu». Baña Marijak erantzun eutzan: «Neure semia zariala erakutzixu zeuk be».

Alan be pekatarijak, galduena izan arén, bere egoera negaragarritik urten gure badau, Ama Birgiña bitaríteko arturik, bere eskari ilak ezin leikena Ama onen duintasunak jadetsiko dau. Trentoko Eleiz-batzarrek erabagita dakigu, pekatuan dagozanak egindako otoi eta egikun onak, bererak ilak badira be maitasun eñotik ez datozalako, beti makurtzen dabela euroka-

na Jaun-eŕukitasuna, onan eskeñi euzkulariko Salbagiliak: «Eskatu egixue ta aŕtuko dozue».

Ziňespide pozgarí au gorago doia Andra Marijagan, Ama zeŕ dan ondo daki-gu-ta. Oŕ ama batek bere seme bi asaŕe dabizela baleki,  bien aŕteko bakiak egi-ten elitzake aleginduko? Orixe jazoten jakó Ama Marijari pekatarijek Jesus iraindu dabenian. Bakiak egiteko, asketsita geratzeko, bakaŕik nai dau eskatu dagijola onbidetuteko goguaz. Eŕuki eske bere oñetan ikusten dabenian pekatari bat, da-na-dala, egindako gaizkerijai ez dautzie begiratzen, beragana daroian asmuari ba-ño; ta ona bada au, ludiko oben guztijetan jausi bada-be, abegi samuŕaz laztanduko dau, eta arimako zauri guztijek osatu aŕte, grazijara berbibtuta, ezta asazkauko.

Goŕputzen bizmena arimia da, eta ari-miaren bizpidea grazija. Marijak diňozku ba, bera aurkitu dagijanak, goitiko bizi-tzia aurkituko dabela. Augaitik dirautzie Bernardo estitsuak grazija galdu daben pekatarijai, bilatu dagijela Marijaren bi-taritez. Gabriel Gotzonak agurtu eban aonan: «Ez bilduŕ izan, Marija, grazija

aufkitu dozu-ta».—Beti grazijaz beterik egon bazan Andra Marija ēzelan dirautzo grazija aufkitu dabela?—Aufkitu eban, jakintsu baten mintzoeran, grazija galdu eben pekatarijentzat. Betoz ba pekatari- jek Marijaren oñetara, ta esan begijue us- tetsu: Andría, aufkituriko gauzak biuſtu biaſ jakoz galdu dituanari; zuk aurkitu do- zun grazija ori geuria da, geuk galdu do- gu-ta; emoiguzu, bestela zikoitza zariala ziñestuko dogu.

Zuzenki deitu eutson Austin deunak Marijari pekatarijen itxaropen bakaſa; berau bitar̄te damosku Jaunak paſkame- na ta iraupena. Egun-sentiko izeſak eguz- kia dakaſ ondotik; Ama Marija grazijaz- ko egun sentia da, ta beragana egapetu dan pekatarijak laster ikusiko dau Jain- kotaſ grazijaren eguzkia. ¡Oh Marija! Zure zaindasuna iſezkoſa da, zure egapea gure aſnasa eta berbizmena da, zeure iru- di baten onduan ilten bagara, ziur zerura- ko gara; zeugana egiz zuzendu danik ga- letsi dozula iñoz be ezta entzunda.

Karmengo anaikideak poztuteko egija adigaſiak diriala onek, edozeñek ezagutu- ko dau aſgiro.

## OTOITZA

Karmengo Ama laztan guztiz maitagarija; zeure seme karmeldarai zeuntzien zaletasun berarizkuak zeroiazan euren ártera biztoki aonetan zengozanian, ta zeure itzaldi gozomamintsuakaz azkoŕtu zenduzan maiteki onbidea jaŕaitu egijen azkenagio, goitiko atsegiñez betetan ziriala zeure ikeŕpen opagaŕijagaz.

Zeure ongure samuŕ origaitik eskatzen dautzugu, ikeŕtau gagixuza-la egunoro zerutiko árgitasun onuratsuokaz, Jaunaren legea bete dailgun-zintzoro zeure egapian il aŕte. Lagun zakiguz, Ama laztana, eŕbes-te aonetan; zuzendu gaixuz beti zetu-bidetik, zeure árpegi zoragaŕija ikustera eldu gaizan lasteŕtxu. Orain baŕiz jaritxi eiguzu Bederatziuŕen onetan zeure bitaŕtekotasun samuŕetik ziur ditxarogun laguntasuna;

onetarako aguítuten zaitugu bijotz-bijotzetik: «Aguí, Eŕegiňa ta eŕukiz beteriko Ama...»

### **Jazokun oroigarria**

Amairugaŕen eunkadan Jestria dirautsien Inglaterra'ko urijan, ixuri edo gatxondatzale batek iratzartuta, ospatu ebezanz aŕentza edo letaniek, Karmengo Andra Mariaren irudia kalerik-kale erabilita, beragaz joiazala karmelita lekaide batzuk be. Eldu zirianian kale-ertz baten eguan Karmengo Amaren aŕizko irudiaren auŕera, onek, bizirik bazegon lez, luzatu eban bere besua auŕian «Agur Marija» esaten eukazan karmeltaŕen ganeruntz, ta ondo etoria emon eutsien arpegi alaitsuaz, eurok eskuaz izentaurik diñoala iru aldiz aonan: «Ara emen nire nebak»; ta azkenian diño: «Eurotaiko bat daguan tokian neure nieba bat dago».

Au bai pozgaría Karmeloko Eŕegiň samuŕaren kerizpian bizi dirian anaikide eta eskapularijodun guztientzat; bere anaitasunian artu gaitu Jaungoikuaren Amak.

## LAUGAREN EGUNA

### IRAKURKIXUNA

*Ama Birjiñak gozotuten dausku eriotz-aldija*

Benetako senideak eta adiskide zintzuak eztira ezagututen zorijon egunetan, nekiak eta zorigatxak inguratu gaituenian baño. Adiskedia ugaritasunian daguala eztabe galetsiko luŕeko adiskediak, baña laster dabe lagatu zoritxaŕera eldu bada, batez be ilteko daguala. Arautegi au ez dauko Andra Marijak bere adiskidiakaz, ba euren ezbiaŕ eta naigabietan laguntzen dautzie maitaki ta geyago iñoz baño laŕijago aurkitu daitezanan, eriotz aldijan.

Bere Seme Nagusi Jesus'en eriotz-samindasunek edan ebazanetik, beste seme guztijoi be oŕdu laŕi arretan zaintsu lagunduteko gogua jadetsi eban. Ori dala-ta dirautzogu ainbeste bidaŕ: «Jaungoikuarren Ama deuna, eŕegutu egixu gu pekatarijon alde orain eta geure eriotzako oŕduan».

Len egindako gaizkerijak diriala, ber-

tan jatorkien epaikundea dala, betiko zoriaren ezbaitasun samiña dala, arigarrijek izaten dira iltamuko naigabeak. Onduan datozen su-lezako diabru gaitzuak luña jo biañ dabentzitzen etxearen giltzakaz jaubetuteko, iñondiko jauspidiak arimiari ipinata. Austin andijaren eretxian ezta ilten iñorbe, ordu aretan diabru arigarria ikusi barrik. Martin Tours'ko Gotzain deunari ageñtu jakon izugarri; bañia santuak kurtziagaz jaurtin eban andik, zirautzola: ēzeten ator ona, pizti zikiñ ori? zeñ añtu eztaukok nigan.

Andres Abelino deunari amar mila diabru etorri ei-jakozan amoñuz beterik eriotz aldijan, ta eurok emoutzien guduka gogoraz, aulduta ei-eguan, negañ baten, ikaraz dañ-dañ, arpegia baltzituta. Bere efukiz negareez egozan beste erlejiosuak be. Alango baten amaitu zan buñukaldi ori, ta bake gozuan lotu zan Ama Birjiñaren irudi bateri tinko begira; eskefak emoteko lez makuñtu eban burua, ta il zan gozatzugozatsu.

Iltamuko larritasunetan ondo urtengo gara geu be Andra Marija geure aldez dogula. Bonabentura deunak diñoanez, bere

debotuai laguntzeko bialduten dau Mikel Gotzona beste aingeru askogaz, gero Jau-naren aufera doiazanian be aldeztuteko, diabruak salatu dagizanian.

Zorijontsua izango zara, kristiñaua, eriotz-aldijan Andra Mariaren zaindasuneko kate gozuakaz loturik bazagoz; betiko gaizkapena ziúrtuko dautzue estun-tza maitagaríjok, ta betiko bake zorijona-ren egun sentia izango jatsu aonelan zeure eriotzía; eta Mariaren otseiñ askok esan dabena autoúrtuko dozu oíduan: Ikusi ezpaneu, eneban ziñestuko ain gozua zala iltea. Oe ondora etoríko jatsu Karmengo Ama Eíregiña bere eskapulariju soñian badozu, eta bijotzez badirautzozu: Ene Ama gozo-gozua, lagun zakidaz oídu one-tan, zeuria naz, zeugaz ilgo naz.

## OTOITZA

Karmengo Ama laztan gustiz mai>tagaríja, Amaren besártira egapetu-ten badira umiak edozelako estualdi-jetan, zeure egape amultsuan abetal-du dozuz beti zeure seme maite kar-meldaríak, auíezka ekatx suminduak

jagi jakiezan guztijan, Karmeldaŕen Lagundia zeugandik jayua da - ta, zeure otseiň osoro eskinduta zeu baňo beste amesik eztauko-ta ⚫ Nogana zuzendu zeitikian ba Simon Stok deuna aldi aretan zeure ontzitxua ondamuak eta amoŕuzko axiak jaŕtu ebenian? Zeure oñetan auzpazturik gogo-beroz zirautzun: «Karmel-loria, masti aletsua, zeru aŕgija. Birjiňa gaŕbi baŕdinbakua, Ama maitari samuŕa, itxas-izeŕa; zeure karmeldaŕoi gugazko zeure almen eta amatasunaren ageŕkai bat emoigu-zu». Beriala ageŕtu ziňatxakozan zu, Ama eŕukitsu ori, Karmengo janzki maitagaŕija emoten amatasun oŕen ezaugaŕi.

Zeure egape gaizkalera eŕduko gara geu be, Karmengo masti lora-tsua, aragijak eta gixaŕte gaiztuak geure arimako ontzitxua ondatu nai daben guztijan Zeugan ditxarogu,

zeru aŕgija, Ama eŕukitsua; zeure egijazko seme izatia eta zeruan beti zeugaz abestutia loŕtu eiguzu. Orain baŕiz jaritxi eiguzu Bederatziuŕen onetan zeure bitaŕtékotasun samuŕetik ziur ditxarogun laguntasuna, onetarako aguŕtuten zaitugu bijotz-bijotzetik: Aguŕ, Eŕegiňa ta eŕukiz beteriko Ama.

### **Jazokun oroigaria**

Asko maite eban Andra Marija txikitik multitxo batek. Bere irudia ikusten eban guztijan, «Aguŕ Marija» edo «Salbia» esaten eutzan gogotsu. Karmengo eskapulariju eroian beti soñian bere zeruko Amaren gomutaki ederena lez. Ikastetxian eguala, bere Nagusiak auŕkitu eban gau baten oe aurian belauniko, eta zeŕgaitik etzan oeratu itandurik, erantzun eutzen: Eskapulariju apuŕtu jakola eta ez eutzola oindiño baríja ekaŕi atezaňak. — Tire, oera arin—¿Baña gau onetan ilten banaz? ni enua lotara eskapularijo barik.—Beŕberak ekaŕi eutzan eskapularí-

jua, eta pozik oeratu zan ofduan Ama Karmenguaren besártian etsunda lez. Eta lo ori izango zala azkenengua gñok siñistu? Ba uñengo goxian ilda aurkitu zan, bere Amaren kutuna eskuetan ondo oratuta eukala. ¡Zorijoneko aingerua oetik zerura juango zan!

## BOSGAREN EGUNA

### IRAKURKIXUNA

*Marija maite dabenik ezta galduko*

Azartua ta uleágaitza eretxiko dautzie askok epai oneri: ezta kondenauko Andra Mariaren egizko zalerik. Baña baietz erabagiko dogu, eleiz-gurasuai entzunda.

Itxaropen onegaz pekatu geyago egiten jaŕaitu gure daben gaiztoentzat ezta aitu biaŕ epai au. Antuste onegaz gaiztakerijan iraun nai dabenak eŕuki duin eztira. Pekatarijak izan aŕen onbidetu nairik Jainkoaren Amagana zintzoro egapetuten dirianen aldez uleŕtu biaŕ dogu egija au.

Anselmo irakasleak diňosku: Nekez zeruratuko da Andra Mariak aldeztu eztabena, ta nekez inpeŕnuratuko da Ama Biŕjiňagana ustetsu zuzendu ta onek eŕukitsu begiratu dautzona. Auŕerago doiaz beste irakasle deun batzuk, ta ziuf zeruratuten diriala Mariaren debotuek diňoskue, ta betiko galdu Marija maite eztabenak. Eŕbestetik donokiruntz doian ontzia da Marija, ta ondatuko da kutxa gaizkale oneitan saŕtu eztana. «Neu maite ez nabienak,

eriotz betikoña maite dabe», abestu dau Andra Marijak.

Geruago diño bestera: «Neugana datorrena eta neuri entzun dagistana, ezta galduko». Augaitik ainbestian aleginduten da diabrua, itxi dagien Marijagazko oneraspena grazija galdu daben pekatarijek. ¡Ah! zelango amoña aritzan dabe goteungeok, oneraspen au kendu ezin dabenian arimetatik. Sena'tar Katalina deunari esautzen Jaunak, Ama Birjiñari emon dantzola berragana egiz egapetu dirian arima guztijek donokiratuteko eskubidea. Au jaristeko atzeratu dau mirariz sañitan eriotzia, Jaunaren asaian egozanak grazijara biurtzeko.

Gure Gaizkale eta bitarteko Jesukristo bakařik dala ziñeskuntzak diñosku, zeru-ludiko bakiak egin eta bere odolagaz beřerosi gaitulako. Baña bere grazijk guri santuen bitartez emoten asko atseginduten da, batez-be bere Ama gozua maitatu eta bitarteko ařtu dogula pozez ikusten dau Bere Amari dirautso Jesus'ek: «Zeř nai eskatu, ene Ama». ¿Zeř eska-tzen dautso ba? Zorigaiztokuentzat eřukia, obendientzat askemena. Jaunaren ba-

kalkuntza bere zuzentasuna ta eŕukitasuna dira; baña zuzentasuna beretzat gorde-  
ta, eŕukitasun giltzak bere Amaren eskue-  
tan itxi dauz.

Aonegaz asikeran izentau dan epai poz-  
garíja ziñeztu giñai osoro, gaiztokiko su-  
tegian eztala neketuko Ama Mariaren de-  
botorik, ta gitxiago Karmengo Amaren  
eskapularijuagaz ilten danik. Ama Birjiña  
maite dabenen aldez esaten dana, askoz  
geituta esan biaŕ dala Karmengo kutuna  
daroien ziñesdunen aldez, diñosku Kolon-  
biere Aita jaun zaleak. Utsik eztau izango  
Karmeloko Eŕegiñaren eskintzarijak, dui-  
ñoro badarabilgu bere janzkia.

### **OTOITZA**

Karmengo Ama laztan gustiz mai-  
tagaríja; ze ongaríja dan zeure men-  
dian egotia jakin egijen ziúŕ zeure  
karmeldarí guztijak, ekaŕi zeuntzan  
aingeruz inguraturik Simon Stok  
deunari zeure kutun edo eskapulari-  
jo edeŕa, itz oroigaŕijok esanez:  
«Eutsi seme maite ori zeure Lagun-  
diko janzki au, neure neba aŕebata-

sun ezaugari, eta berau jantzi dagi-jen karmeldar gustijentzat neure mai-tasun ageŕkai; beronegaz ilten dana, gaiztokiko sugarétan ezta ikusiko».

Eskeŕak, Ama geuria, eskeŕak; zeure beŕbia ezpalitz, ain aundi-a dala gugazko onustasun au ez geun-ke ziñestuko. Karmengo kutuna da gugaz zeure bijotza, zeure besua, zeure indaŕa ta zeure maitetasuna. Bedeinkatu izan bedi, Ama laztana, soñeko aberatsau Simon deunari ekaŕi zeuntzan oŕdua. Eŕbeste aone-tan zeure semiok doguzan galbideak ondo dakixuz-da, zeugana bialtzen doguz geure arnasa, sotiñ eta eska-rijek, adi gagotzuz beti, Ama Birji-ña gozua. Jantzi ta erabili nai dogu soñeko edeŕ au, berari jagokazan mesede ugarijak jaristeko biaŕ bestian, autoŕtu al daigun egiz, gozua dala zeure kerizpian jaŕita aŕtu do-gun grazijazko janaria eta apaindu

gozuzala zerurako dirianen jantzijaz.

Orain bañiz jaristeko Bederatziuren onetan opa dogun laguntasuna, aguítuten zaitugu biotz - biotzetik: Aguŕ, Eŕegiňa...

### **Jazokun oroigaria**

Galzorietan osasuna dala Karmengo eskapularijua, mirari askogaz dakusgu egiztuta.

Aba Jeun'ek, Cong. Oratorii, berberak ikusitako alatz au dakaŕ. Perikex'ko mi-xiňolarijek uri baten (Aulaye) belguntza emoten egozala, etxe edeŕ bat aŕtu eban suak. Gomutau zan eurotatik bata, zelan ogei urte auŕerago amatau zan sutegi andi bat, eskapularijua sugar etara jauŕtinda. Onen esanera, an eguan mutil gaste batek, Juan Lalage, jauŕtin eban sugar -erdira soňian eroian Kaŕmengo kutuna, eta ¡mirarija! bat-batez amatau zan sutegi guztija, ta uŕengo egunian oso-osorik auŕkitu zan eskapularijua.

Itxasoko urek be saŕi baretu dira, euren erdira eskapularijua jauŕtinda, ondatuteko galzori agirijan auŕkitu dirianian Kar-mengo eskapularijodunak.

## SEIGAREN EGUNA

### IRAKURKIXUNA

*Maitagarí dogu Andra Marija*

Maitagarí egiten dabe gauza bat bere edertasunak eta ontasunak; norbait maite oi-dogu ederá dalako edo ongilia dalako. Oso ederá eta gustiz ongilia da Andra Marija; beraz iñor baño maitagaríago. Orbanbakua eta eder-ederá dala dirautso Goteunak berak; eguzkiaz jantzita, izafez burestunduta, oiñpeko idetargia dauko. Ongilia dala zeru-luŕak dagoz aŕgiro iragártzen, danoi on egiten baño beste atsegíñik eztauko-ta.

Origaitik Marijaren izaña ezin entzun giñai, geure bijotza pozez lasatu barik, geure espanak eztiz gozotu barik. Jesus'en izaña lez Marijaren izaña bijotzian leguntasuna da, aoan eztije ta belaŕijetan abesti alaitsua; ain gozo ta maitagarí dalako, ezin mintzatu giñai, maitetasunian bijotzak gaŕtu barik. Bere alaba maitari bati esautzen Ama Birjiñak, iru eskaŕ andijok loŕtuko ebezala bere izaña saŕi dei-

tu egijenak: Gaizkerien damu benetakua, grazian iraupena, eta betiko zorijontasuna.

Ori dala-ta dirausku Kenpis agúgaríjak: Atsakabietan poza aurkitu nai bado-  
gu, Marijari deitu, Marijari eskatu, Mari-  
ja otseindu, Marijagaz negar egin, Mari-  
jagaz poztu, Marijagaz Jesus bilatu; Je-  
sus eta Marijaren izen eztitsuek esaten lo  
geratu; eurok esaten bizi ta il.

Ain maitagarí dalako Ama Birjiña, be-  
re irudiagaz abestuten zoratuta lez egon  
dira santu asko; euren bulef ganian búdi-  
ña gorigaz iraftu dabe Marijaren izena  
beste batzuk; Bernardino Senakuak zirau-  
tzan bere maitea; bere atsegíña Pelipe  
Nerik; bere bijotza Albontzo Ligoriok.  
Karmeldarí deun batek zirautzan beiñ: As-  
ko maite nozune bakit, ene Ama, baña  
maiteago zaitut neuk. – Erantzun eutzan  
arin Andra Marijak: ¿Zeŕ diñozu, seme,  
zeŕ diñozu? Zerutik lufera bitar te labuŕa-  
gua dago nik dautzudan maitasunetik zeuk  
daustozunera baño.

Ume Jesus'en Teresatxo deunak ziñoa-  
n: ¡Ah! ze maite dodan Marija neure Amatxu  
kutuna! Eleiz-gizon izan banintz, zelango

maitasunaz gorestuko neban!» -- Berari zirautzan onan: «¿Zeu baño zoriontsuago nazana bakixu, ene Ama maite ori? Zu Amatzat zaukedaz nik, eta zuk eztaukozu nik lez maitatuteko Ama Birjiña bat. Jesus'en Ama zariana baki, baña neuri emon daustazu ori, eta onek kurutz-age-tik itxi zaitu geure Amatzat; aonan zeu baño aberatsago gara gu».

Leonardo domekaŕ lekaideak beŕeun aldiz egunoro aguŕtzen eban Ama eŕuki-tsua. Iltxeŕ eguala ageŕtu jakon zirautzo-la: ¿Il da nai dozu neugaz etori, Leonardo? — Ainbeste bideŕ aguŕtu nozun Ama eŕukitsua naz, eta zerura laguntzen natoŕ-tzu — Lo geratu zan Leonardo, ta zeruan itxaŕtu zan.

Maitatu daigun guk asko Karmengo Ama, ondo oŕdainduko dauskü-ta.

## OTOITZA

Karmengo Ama laztan guztiz mai>tagaŕija; zeure seme maitetzat aŕtu dozuz Karmengo kutuna daroien ziñesdun guztijak, eskintzen dautzozuela Jaunaren auŕerako egizko

Amaren aldespen aŕduratsua: ori egija dala adirazoten dauskue oŕ-emen saŕi egin dozuzan alatz eta mirari ospetsuek. Zeure jantzi gorralgaŕi onek damoskun eskubidea-gaz aguŕtuten zaitugu Amaren izen gozuagaz; mun egiten dautsogu zeure maitasun-gomutaki edeŕ eskapulario bedeinkatu oni, eskeŕ gogo-tsuak ageŕturik. Oŕtxe ikusten dogu zeure bijotza, Amarik onenen bijotza. ¡Ze ona zarian geure bijotzeko Ama!

Zeure bijotzeko seme-alabak gara-ta, gustiz eŕukitsu begiratzen gozuz beti, eta begirakune maitale ori itxaropena ta gozotasuna da gutzat. Eguzkiak alaitzen baditu lorak, gure bijotzak alaitu, berotu eta kemenduten ditu zeure begirakunak. Ez gai-xuz ba iñoz zeure ikuspegitik galdu. Orain baŕiz jaritxi eiguzu Bederatziuŕen onetan zeure bitar tekotasun sa-

muŕetik ziur ditxarogun laguntasuna; onetarako aguŕtuten zaitugu bijotz-bijotzetik: Aguŕ, Eŕegiňa ta eŕukiz beteriko Ama...

### **Jazokun oroigaria**

Padua'ko saldun gaste batek jantzi eban Karmengo kutuna maitasun andijagaz. Griňa zitelen indaŕak eta lagunen jaŕaibide dongak galdu eragin eutsien gurasukanako lotzia eta gauza onetarako zaletasun guztija. Baŕuko aginkadak ežin iga-rorik, bere burua erailtia erabagi eban. Bere bulaŕa zearŕkatuteko endaitz bat jauŕtin eban indaŕ gustijaz, zorionez eskapulariju eukan aldetik; baňa buŕdiňa zoŕtz arek bulaŕian ez eban saŕtu nai. Sakatu bigaŕenez, eta ezin. Begijek aŕgitu jakozan emen eskapularijuaren alatz andija ikusteko. Damutu eta onbidetu zan andik auŕera.

## ZAZPIGAREN EGUNA

### IRAKURKIXUNA

*Marijari eskintzeko oparijak*

Jaungoikuaren Ama gustiz emole ta eskeŕ onekua da-ta, mesederik aundijenak damoskuz opari txiki batsuen oŕdaingarí. Jantzi bigaz etoŕi biaŕ dabe bere opaz eskiňi daiguzan egintzak: gogo zintzua eta iraupena. !Ah! gaiztokiratu dira, zeruratuko zirian asko, autu eben Marijagazko oneraspenian azkeneraño iraun balebe.

Andra Marijari eskiňi giňaiozan opari batzuk, eta bakotxak nai dabena aŕtu leikezanak, ara emen.

Lenengo oparija: «Aguŕ Marija». Berrizko pozaldia emoten dautsogu aingeruaren itz onekaz agurtu dogunian. Gogotsu esan daigun ba «Ave Marija»: Iru bideŕ belauniko oeratukeran eta jagikeran, otono onexegaz, «Zeure Sofpen gaŕbijagaitik neure goŕputz eta ariman zaindu nagixu gauŕ, ene Ama». Beste iru bideŕ, lotza barik Kistaŕ egijazkuak lez, «Angelus» Kanpaia goix, egueŕdi ta iluntzera entzun danian; eun eguneko parkamenak irabas-

ten dira. Baita esan biaŕ da erlojuek oŕdu osua jo daben guztijan, ta edozelako lan bat asikeran; bakotxak daukoz ogei eguneko parkamenak.

Bigaŕen oparija: «Bederatziuŕenak». Bere jaijetarako bederatziuŕenagaz ger-tau, eta bere egunian autoŕtu eta jaunartzia gustiz onuratsua da

Irugaŕen oparija: «Baraua». Bijotza irabasten dautsogu bere jai auŕegunian eta sapatuan barau egiňik. Ama Biŕjiňari donetutako eguna da larunbata, ta bere opaz askok mesia entzun eta barau egiten dabe.

Laugaŕen oparija: «Limosnia». Atsegin aundiha arŕzen dau bere izenian limosnatxu bat emoten danian, batez be sapatuan. Gregorio deunak diño, Deodato zirau-tzien zapatari batek asteko alogor erdiya eskeko txiroai emoten eutzela sapatuan, eta santu batek ikusi ebala beretzako jau-regi eder bat egiten ziarduela zeruan sapatu guztijetan

Boskaŕen oparija: «Alkartasunek» Ama Biŕjiňaren izeneko anaidi edo kopradijetan izenpetu eta ango eginkixunek ondo bete.

Seigaŕen oparija: «Aguŕtza edo eŕosarrijua». ¡Zeinbat damutu, ondo il eta zeru-

ratu diran deboziño ongaři onen bidez! Egun baten be ezta itxi biař bakařik edo bestiakaz Ama Marijaren burestunau go-gotsu ta astiro eskaritu barik.

Zazpigareňen oparija: «Kutunak». Andra Marijaren gugazko maitasunaren gomutakirik edeřenak bere kutun edo eskapularijo santuek dira, Karmengo Ama laztanaren eskapularijua batez-be.

Aoř daukozuz, kristiňaua, zeure Ama zerukua omenduteko opagai batsuk izentauta. Guztijok edo batsuk gauřgandik zeutzako arťu egixuz. Zerurako mařadia ta zeruko atia Ama Marija dala bakixu, ta bere kerizpetik ezaite iňoz aldendu.

## **OTOITZA**

Karmengo Ama laztan guztiz maitagařija; gizadi guztija miraritu dozu zeure eskapularijodunai ageřtu dautzuen ongure laztanagaz; autu dozuz ez bakařik zeure seme berarizkotzat, zeure anaikide be bai; alkařtasun onen bidez zeure neba ta aizta gara gu. Grazijazko senitasun omen-

gaŕi onen baŕuan gagozala jakin ezkerro, aintza aundijagorik eztogu nai guk biztoki aonetan; zorijon au go-mutarik, ondo pozik gagoz.

Zeure Lagundiko ezaugaŕi au duiñoro erabili daigula jadetsi eiguzu, Andra miragaŕija; zeure kutunak egiz ez dau estalduko alpeŕik Jaungoikua maite eztaben bijotza; obenez oŕbandu dogu oraiñ arte bijotz au, baña paŕkatu, Ama laztana; azketsi gaŕbitasun Eŕegiňa, zeure laguntasunaz geyago eztogu loiŕuko-ta.

Orain baŕiz jaritxi eiguzu Bederatziuŕen onetan zeure bitartekotasun samuŕetik ziur ditxarogun mesedia; onetarako aguŕtuten zaitugu bijotz-bijotzetik: Aguŕ, Eŕegiňa ta eŕukiz beteriko Ama...

## Jazokun oroigaria

1622'g. urteko Epañaren 14'g. Mantuan eroien urkamendira gizon donga bat. Gaiztua bazan be, soñeti ez eban kentzen iñoz Karmengo Amaren kutuna, itxaropen audi ja eukala beragan. Urkamendiko mañaditik goruntz eskaritu eutsan «Salbia» Karmengo Eñegiñari, ordu lañi aretan lagundu egijon. Estuntzak idunera ezarita urkatu biañi ebenian, didañi baten esan eban: «Eñuki zakidaz, ene Ama laztana». Tramankulu andijari giraka asi zan boñerua gizon eñukarifa itoteko. Baña jau mirarija! etendu zirian bat batez lokañi guztiek. Belaunbiko berthan gizonak diñodanen aurian: Onangoxe mesediak aritzten dituez Karmengo Amagana egapetu dirianak». Auñera doia ondiño boñerua, ta endaitz bategaz zearkatu nai dautzo bijotza; baña igeñtuta lez geratu jakon besua jaso ebaneko.

## ZORTZIGAREN EGUNA

### IRAKURKIXUNA

*Karmengo kutuna*

Amairugařen gixaldi eřdiruntz, 1251'g. uřtian, Aingeruen Eřegiňa ageřtu jakom eřeguka zeguan Simon Stok Karmeldar Lagundiko Aita Nagusiari, eta zerutik ekařen janzkia erakutsita itz oroigarřijok esan eutzozan: «Eutsi, ene seme maite ori, zeure Gopatzeko janzki au neure amatasun eta zuentzat lořtu ditudazan eskar ugarijen ageřkai; ezta neketuko inpernu ko sutegian jantzi aonegaz ilten dana; aor gaizkapeneko (salbaziňoko) ezaugarřija, galzorietan osasuna».

Karmeloko Eřegiňak egun zorioneko ofetan ama bat zer dan erakutsi euskun ařgiro: *Amat et dat vestitum*. Norenak dirian umiak jantzitik ezagutzen ziriala ondo ekien-da, ama onaren legetik bere maitasun gomutaki kutun aberatsau emon euskun, bere seme maiteak deiturik.

Bíztaldijan, eriotz aldijan eta gařbitokian dagozala eltzen jakiez eskapularijo au daroienai bere oneskun ugarijak Ar-

tzen dauz eurok Karmengo Ama samuñak Kistar guztien ar̄tian bere seme-alaba berarizkotzat. Lagunduten dautsie aŕdura geyagogaz euren galzori eta jauspidietan, alatz miragarí askogaz ori saritan erakutzita dakigun lez. *Salus in periculis.*

Oŕen gañera, alkaŕtasun baŕu-barukua ar̄tzen dabe karmeldar Gopatz edo Lagundiko otoi, jaupa, ildura eta beste egikun on guztijetan, eta karmeldar anaikide ta deun guztien irabaşpenetan.

Gero Garbitokian aurkitu daitezkaneko parkamen ugarijak dagoz. Geyago be bai, Juan XXII'g. Doipuruari esan eutsan Karmengo Amak aterako dituala oñaztoki aretatik zerurako laster, il da uŕengo larrubatian batez-be Baña mesede onen duiň izateko, lenengo: Goŕde biaŕ dau bakotxak gafbitasuneko onoimena bere bizibidean; bigaŕen, esan egunoro Ama Birjiñaren Eleiz - Otoitz - Txikija; irugaŕen, irakuŕten eztakijanak, oŕen ordez goŕde biaŕ dauz Eleiz-barauek eta okela-gauzariak ez jan eguzten-zapatuetan.

Baña Karmengo kutunak daroiazan onustasun guztien gañetikua ta beste onura guztiek safatuten dituana *Signum*

*salutis* deitzen jakona da. Eskapularijo aonegaz ilten dana ezta gaiztokiratuko, Karmengo Ama eŕukitsuaren egapien jaunzale bizi izan dana eta bere janzki maitagaŕi au soñian dabela ilten bada inpeŕnuko su-lezara ezta jausiko. Orixetx agindu dausku zeruko atia eta obendijen aldezlarri eŕukiora dan Jainkoaren Amak.

Soñian erabili ba beti eskapularijo au mesede andi au irabasteko, egunez nai gabaz, osasunez nai gaxorik; edozein orduan il giňaitekez ameneko, eta soñian ezpadaukogu orduan, galdu giňai eskubide ori.

## OTOITZA

Karmengo Ama laztan guztiz maitagaŕija; zeure seme karmeldarai egin dautzozuen eskintzarik pozgaríjena da, eriotz ona izango dabela zeure kutuna soñian dabela ilten dirianak. Esan nai dauskuzu, gogozintzuaz badaruagu zeure janzki au, eta aldian dogula ilten bagara, ez dauzkule kalterik egingo inpeŕnuko

sutegiak, donokirako izango garia-  
la, zeure bitar tekotasun aundi jak  
Jaunaren adiskide iltia loztuko daus-  
kulako.

Bekokia luferagiño maku turik es-  
keí sutsuak egiten dautsuguz, Ama  
laztan geuria, gugaz dozun aídura  
andi onegaitik. Bete egixu gugaz  
eskintza ori, eta mesede berarizko  
au jaristeko eragospenik ařen ez  
daigule imini geuk. Etoři zakiguz  
lagun iltamuko lařialdijan.

Orain bařiz jaritxi eiguzu Bedera-  
tziúren onetan zeure bitar tekotasun  
samur etik ziúr ditxarogun lagunta-  
suna; onetarako agur tuten zaitugu  
bijotz-bijotzetik: Aguř. Eřegiňa ta  
eřukiz beteriko Ama...

## Jazokun oroigarria

Segobia'ko Kastelmont dirautsien eríjan Santiago Kalpe'ri jausi jakon oñaskar bat; soñekuak kiskali ta begijek efe eutsazan; ezin bizi zeitikian, gizon antzik be ez eukon-da. Ba gizon au, soñian eroian Kar mengo eskapularijuari eskefak, bizirik iraun zan amabost egunian. Artian sakramentuek astiro artuta. il zan larunbata egunian.

Beste onenbeste jazo jako geure egunean Ilario dirautsien gizon bati Jaraicejo eríjan. Basotik mando ganian etoñela, il eutsan mandua oñaskar batek eta berari Kiskali soñeko guztijek; bakafik itxi eutsan osorik eroian Karmengo kutuna, eta beraugaitik eguan bizirik.

## BEDERATZIGAREN EGUNA

### IRAKURKIXUNA

*Kutuna Marijaren oroipena*

Geure gozotasuna eta itxaropena deitutenten dautso doibatzak Andra Marijari Salbe'ko otoitz edeñ-ederian. Guztiz gozua da bai Karmengo Ama bere semientzat, on-onā eskapulariju darabilen guztijentzat. Jaungoikuaren Amak zerutik ekari dauskun jantzi maitagarria da kutuna, ¡Zelango itzal eta maitetasunegaz erabili biañ dogun ezaugari zerutar au! Gixartian izeilan poztuten diran norberen abendako ikuriñagaz, eta ze añó eruaten dabezan bulañ ganian euron enderiko seme gixa-guren ospegarri diran domiñak! Bijotz maitarijek ize zintzoro goñdetan dabezan maitearen eskutik jatorkiezan gomutakiak!

¿Ezta ba eskapulariju zeruko Eñegiñak bere semiai emon dautsien gomutaki bat? Ospeki bat baño geyago ikusten dau bijotzak maitearen bijotzeko gauzetan; bijotza berbera ikusten dau, ta onek dakañ ongure laztan-samurá. Oyal sati bat baño

zerbait geitxuago ikusten dogu bai guk Karmengo Ama gozuaren kutunian. Ikusten dogu maite-maite gaituan geure zeruko Amaren bijotza, ikusten doguz erukiz begiratzen dauskuezan begijak, ikusten dogu samurki laguntzen dauskun esku altsua.

Iluntasunez inguratuta ikusten dan ari-miak laztanduten dau kutuna buleafera estuturik, ta gogo beroz dirautso: «Enaixu itxi, ene Ama gozua». Naigabiak, zorigatxak eta samindasunak aulduta dagon bijotzak kutunari munka diño: «Gaizkatu nagixu, lagun zakidaz, ene Karmengo Ama Eregiña». Bakartrasun samiñian ilten daguanak eskuetan airtuta negaŕ malko gozuakaz bustiten dau eskapularijo bedinkatu au. ¡Ah! Alkaŕi berbاز dagoz bijotz bi: Marijaren bijotza eta ilten daguana. Onek eskatzen dautso, ez dagijala bakarik itxi oŕdu aretan. Amak dirautso: «Emen nago-ta, ez bilduŕtu; neure semia-kandik enaz aldenduten ni». «¡O neure Jaungoikua, esan giñai emen karmeldar lekaime Isabel espetsuagaz, ze gomutaki gozua dan guretzat, kutun maitagaríjau bijotz ganian erabiltia!»

Amaitu daigun jakintsu baten itz onexekaz: «Karmengo kutunak bestian geure zoriontasuna ziuftuten dauskun beste ezaugari bat eztaukogu, ta ortik guk maitago izan biaŕ dogunik bat bez».

Beraz eskapularijo onek estalduten eztaben bulaŕik ezta izan biaŕ; umeai iminko ezdautsien amarik ezta izan biaŕ; berau saŕi goralduko eztaben eleiz-gizon edo misiñolaririk ezta agerŕtu biaŕ iñon; gexuai eruango ez dautsien osalaririk ezta ikusi biaŕ; azkenez eztau egon biaŕ iñon kutun edeŕ au bedeinkatuko eztaben mingaňik, laztanduko eztaben espanik, maitatuko eztaben bijotzik.

## **OTOITZA**

Karmengo Ama laztan guztiz maitagaŕija; gitxi balira lez zeure karmeldarí seme laztanai biztaldijan agindu dautzezuezan laguntasunak, adirazo dozu bakerik eztaukozula ainbat ariñen zeugaz donokira eruan arte, berbia emon dautzezuenian, Gaŕbitokiko oñaz aŕigaŕijetatik ate-

rako dozuzala eriotz ondorengo sapatuan edo alik ariñen beintzat.

Aundi ja da benetan zeure seme zorijoneko onei erakutsi dautzezuen maitasuna. ¿Euron aŕteko nok eztau gurako izan? ¿Galduko ete-doguz onera ain andijok, egikun eŕaz batsuk ez betetiagaitik? ¡Geuk ez beintzat, geure Ama zoragaríja! Zeure janzki onegaz aldeztuta bizi gura dogu; berari laztanka azkenengo aŕnasia emon gura dogu; gaiztokitik azke, gaŕbitegitik be lasteŕ uŕtenda, Jaunaren anditasunak abestu daiguzan zeugaz batera amaibako egunetan.

Orain baŕiz jaritxi eiguzu Bederatziuŕen onetan zeure bitaŕtekotasun samuŕetik ziúŕ ditxarogun laguntasuna; onetarako aguŕtuten zaitugu bijotz-bijotzetik: Aguŕ, Eŕegiňa ta eŕukiz beteriko Ama...

## Jazokun oroigarria

Juan Bautista Bertran aguñgarrijaren bitzako edestian irakurten da gertagai berarizko au. Kastelon'go erkian, Alkora'ko txaunburu zala bera, bariku gaubetan sari entzuten eizirian elex-baŕuan gaberdiruntz txilin-soñu asko. Jakin eban Karmengo anaikide edo Kopraden arimak ziriala, era ofetan sapatuza asikeran erakus-ten ebela euren poz aundiha, egun onetan Karmengo Amak etorri ta eruango ebazalako asko garbitokitik zeruetara

## O A R A

*Eguneroko «Jazokun oroigarria» irakurri leike eguneroko «Otoitza» baño aurérago be, baita irakurri barik itxi be, gure bada.*

*Karmengo Amari «Iruñena» egin ziñaiotzenengo iru egunetako otoyak arthurik.*

*Soñian daruagun Karmengo eskapulari-jua mun egiten dan bakotxeko, 500 eguneko parkamenak emon dausku z Benedito XV'g. Doipuriuak, 1916'g. Garilaren 8'g. Baña eztira irabazten oren ordezko domiñari mun eginda.*

## OTOI GORESLARIAK

Agurtu eta goralduten zaitugu, Karmeloko Andra Marija, zeure duintasuna ezaguturik, Aita Jainkoaren alabia zarialako. Aingeru ta zoriondun guztiak donokian abestuten dautsuen aintza, geuk be abestuten dautsugu gogotsu negar-eři onetan, emon zeunkun kutugaitik eskergari. Agur Marija...

\* \* \*

Agurtu eta goralduten zaitugu, Karmeloko Andra Marija, zeure duintasuna ezaguturik, Seme Jainkoaren Ama zarialako Aingeru ta zoriondun guztiak donokian abestuten dautsuen aintza, geuk be abestuten dautsugu gogotsu negar eři onetan, emon zeunkun kutunagaitik eskergari. Agur Marija...

\* \* \*

Agurtu eta goralduten zaitugu, Karmeloko Andra Marija, zeure duintasuna ezaguturik, Goteunaren uso maitia zarialako. Aingeru ta zoriondun guztiak donokian abestuten dautsuen aintza, geuk be abestuten dautsugu gogotsu negar - eři onetan, emon zeunzkun kutunagaitik esker-gaři. Agur Marija...

\* \* \*

Karmengo Ama Deun maitagaría, zeure aintzaz eta eřukitasunez beterik dagoz zeruak eta luřa. Karmeloko edertasunari beti aintza, naigabettuen itxaropena, neketuen atseginagaría eta Gokaxoen alaigaři dalako.

Iru nai bederatzi bidar esan leike, oneraspena zelan.

\* \* \*

Beti bedeinkatua eta ospetua izan bedi Ama Birjiňa Deun-Deuna, Ai-

taren alabia, Semiaren Ama eta Go-teunaren maitia, eήuge sortua, Kar-meloko edertasun zoragaría.

\* \* \*

V. Regina Decor Carmeli, ora pro nobis.

R. Dedisti nobis signum protectionis tuoe.

### **OREMUS**

Deus qui Beatissimoe semper Virginis et Genitricis tuae Mariae singulari titulo Carmeli Ordinem decorasti; concede propitius, ut cuius Commemorationem pio celebramus officio, ejus muniti praesidiis, ad gaudia sempiterna pervenire mereamur. Qui vivis et regnas in saecula saeculorum.

**SALBEA**

Aguí Eŕegiña, Ama eŕukioŕa, geure bizitza, gozotasun eta itxaropena, aguí. Zuri deyez gagoz Ebaren ume eŕbestetuok: antsiz eta negaŕez gatorkizuz negaŕ eŕi onetan. Ea bada, geure bitarteko Andrea, zeure begi eŕukitsu oŕeik gugana biuŕtu egizuz, eta eŕbeste onen ondoren erakuzkuzu Jesus, zeure sabeleko Seme onetsi ori. O biotz bigun! O eŕukioŕ! O Marija Birjiña gozoa! Gure aldez otoi egizu, Jaungoikoaren Ama Done oŕek, Jesukristoren agintzariak jadetsi daikeguzan. Amen.

# KARMENGO ANDRA MARIJARI

## ASTEROKO IKUSTALDIA

### DAMU-OTOITZA

#### BEDERATZIURENA'REN LENENGO EGUNIA! LEZ

Karmengo ene Ama gozo-gozua, zeure oñetara pozaŕen natortzu, zeure egapian aldi atsegintsu bat igaroten eta zeure lagunkideakaz dozuzan onustasunak goznartuten. ¡Ai, Ama samuŕ-samuŕa eta neure goguarén alaitasuna! Zeure eskuetan ikus-ten dodan eta neure bular ganian daruadan kutunak gomutaratzen daust zeure nigazko ongure samuŕa. Osa-sunaren ezaugaŕia, galbidieta al-dezpena eta betiko bakiaren ikuŕiña dala kutun au, zeuk esan dozu; eta beragaz ilten dana eztala neketuko gaiztokiko sutegian, zeuk autortu dozu.

Berba onek itxaropen gozuaz atseginduten dabe neure bijotz au, ene Ama on-on. Kutun maitagarí au da zeure almen eŕukitsuaren ageŕ-pena, ta  zeren bildu  izango naz, soñeko sendo onegaz estalduta banago? Gexorik, nai atsekabez aul-duta auŕkitu naitenian, kutuna laz-tanduta poztuko naz; neure kaltez jagiten badira sumindurik diabrua, gizadia ta aragia euren malmuzkeri galgaríjakaz, kutun onegan auŕkitu-ko dot laguntasun eragiko . Andra Marija neure aldez izan ezkero  ze  egin leike iñok nire kaltez?

Arerio eta gudaldi guztien artian, baketsu egongo da nire bijotza, ku-tunak diraustalako neure Ama za-riala, ta Ama izan ezkero, zeure se-mia galtzia eztozula iñoz laketuko.  Ezta alan, Ama maitia? Nire bijo-tza, zeuria balitz lez, zainduko do-zula; ezta egija? ¡Ai, Ama laztana,

ze ona zarian! ¡ze bijotz samuña daukozun! ¡O Karmengo Etegiñal ezelan etzaitut ezagutu lenago?

Ointxe bai dakit ondo, zeure Karmeloko ixenak daukan indarfa, zelai negartsu onetan dagozanak poztuteko. ¡Ze gozua dan niretzat zure gomutia! Nire bijotza maitasunez beteta egon ezkero, ezeí nai dozu, Ama neuria? Neure eskeí ona era-kusteko, zeí egingo dot? Zeuria da nire gogua; zeuria nire bixi-ixatia; zeuriak nire gogapen eta naikune guztiak. Eskapularijo au izango da beti gomutara ekaíko daustana, zeuria nazala, eta zeu zariala neure itxaropena, neure Ama, neure gustia.

Zeure ondotik alde egin baño len, grazija bat eskatu biaí dautzut, au da, nik emen ikeftetan zaitudazan lez maiteki, zeuk be, Ama gozua, ikustau naixula eriotzako atietan ba-kaík auikituko nazanian. Enaixu

aiztu órdu ikaragaŕi aretan, zeure egape samuŕak aldeztuta itxi dagidazan azkenengo aldiz neure begijok. Agur, Ama; zeure oñetan isten dot neure bijotz au, gordeixu. Agur, Karmeloko edertasuna; agur, Ama eŕukitsua, agur.

*Emen esan ziñaikez Andra Marija'ren Letanijek edo Kyrieleisonak.*

## AGUR ESKARTSUAK

1.<sup>a</sup> Karmengo Ama maitia, bedinkatua izan bedi zure izen gozua, eta goraldu zayezala Aingeruek ta jaunzale guztiek, zeure kutun maitagaŕi au emon daustazulako. Agur Marija...

2.<sup>a</sup> Karmengo Ama maitia, bedinkatua izan bedi zure izen gozua, eta goraldu zayezala Goi aingeruek eta jaunzale guztiek, zeure kutun maitagaŕi onegaz neure arimako osasuna zarialako. Agur Marija...

3.<sup>a</sup> Karmengo Ama maitia, bedeinkatua izan bedi zure izen gozua, eta goraldu zayezata Gotzon-Jaŕgoiak ta jaunzale guztiekin, zeure kutun maitagaŕi onegaz galzorietan zainduten nozulako. Agur Marija...

4.<sup>a</sup> Karmengo Ama maitia, bedeinkatua izan bedi zure izen gozua, eta goraldu zayezala Gotzon Aldunak eta jaunzale guztiekin, zeure kutun maitagaŕi onegaz neure arerioen indaŕak azpiratuteko almena emondaustazulako. Agur Marija...

5.<sup>a</sup> Karmengo Ama maitia, bedeinkatua izan bedi zure izen gozua, eta goraldu zayezala Kerubiñek eta jaunzale guztiekin, zeure kutun maitagaŕi onegaz zeru-bidea erakusten daustazulako. Agur Marija...

6.<sup>a</sup> Karmengo Ama maitia, bedeinkatua izan bedi zure izen gozua, eta goraldu zayezala Gotzon-Sera-

piñek eta jaunzale guztiak, kutun maitagaři onegaz zeure seme bera-rizkua egin nozulako. Agur Marija...

7.<sup>a</sup> Ama maitia, Karmengo Ama laztana, nik dámotsudaz neure biotza ta bizitzia; bedeinkatua izan bedi zure izen gozua gizaldirik gizaldira; goraldu zayezala donokiko zoriondunak lez ludiko siñesdun guztiek be, kutun maitagaři onegaz beti zeugaz zeruan atseginduteko itxaropena emon daustazulako. Agur Marija...

Salve Regina, Mater misericordiæ.

L. D. V. M. D. C.



14

A  
35